

**LUIS VILLASANTERI OMENALDIA:**  
***IKER 6***

*Gernika, 1992-VII-24*



## LUIS VILLASANTERI OMENALDIA

*Gernika, 1992-VII-24*

*Sergio Villa,  
Gernikako alkateordea*

Lehenengo eta behin eskerrik asko hona etorri zarien/zareten danori eta uste dot/dut ondo merezitua dela hau omenaldiau. Horregatik ba, zeuen etxean zauze/zaudete eta guk ateaq zabalduen duz/ditugu omenaldi honetan danok parte hartzeko. Alkate jaunak –Eduardo Vallejo– agindu dost/deust/dit lehenengo eta behin, eskatzeko parkamena bera hemen ezin delako egon beste premina batzuk euki/eduki ditu eta, orduan, nik hartzen dot/dut haren lekua. Beraren partez, udalaren partez eta gernikar guztion partez gure Aita Luis Villasanteri zorionik beroenak bere omenaldi honetan. Gu ez gara hemen azaltzen hasiko gure Aita Villasanteren senblantea eta beronen eginkizunak. Danon ezagunak dira. Danok dakizue beronen lan gogorra, zintzoa eta berezia zelan/nola doan aurrera. Horregatik ba, guk bakarrik oparituko deutsogu/diogu gure zorionik beroena. Eta, adibidez, esan gura dot azkenengo, orain dela aste pare bat, Udaletxeko pleno osoak hartu zeuen/zuen erabakia gure Bizkaiko Aldundian presentateko solisitude bat, ikusten deule/dugula oso merezitua dela gure Aita Villasante egiteko Bizkaiko “seme bikain”. Beronen izena egon deien/dadin seme bikain batzuren ondoan. Ze inork merezituta badauko/badauka, honexek dauko. Uste dugu honeri/honi guk gura deutsogu/diogu, guk gernikarrok, hauxe ipini ginda moduan, esate lez: merezi dau omenaldia eta merezia da Bizkaiko “seme bikaina” izatea. Besterik ez bakarrik danori, Euskaltzaindia guztiari benetan egiten dituen beharregatik gure euskera aurrera eroateko beti geroago eta sakonago erabilteko eta beti zehatzago egiteko gauzak. Halantxe eskatuten deutsegu /diegu bai Aita Villasanteri eta bai bere kideei. Segituko deiela/dezatela, jarraituko deiela aurrera euren zereginetan. Hor lotuko da zehar, historian zehar, euren beharra gure zeregin guztiak azalduz. Horregatik ba, gehiagoko barik, eskerrik asko danori eta Aita Villasante zorionak eta urte askotarako.



**IKER 6 LIBURUAREN AURKEZPENA**  
**AITA VILLASANTE-REN OMENALDIA**

*Gernika, 1992-VII-24*

*Jean Haritschelhar*  
*euskaltzainburua*

Jaun Andereak, agur.

Mintzaldi hau idazten hasi naizelarik gogoratu zait kantu baten hastapena:

Besta eder huntara  
Goazen oro betan...

Besta dugu, gaur, Gernikan, Gernikako udaletxe honetan eta eskerak nahi dizkizut bihurtu zuri, Sergio Villa jauna, Gernika-Lumoko alkate ordea, orain bertan erran dituzun ongi-etorritzko hitz sarkorreatik eta utzi diozulakotz Euskaltzaindiari udaletzeko areto nagusi hau bere hileroko biltzarrarentzat eta oraiko biltzar idekiarentzat.

Besta eder honetara etorri zarete gernikarrak, Aita Villasante-ren ahaideak edo haurtzaroko adixkikeak eta bereziki zu, Mari Karmen Garmendia anderea, Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia, Eusko Jaurlaritzaren eta Lehendakariaren izenean. Irakurtuko duzu gero Lehendakariak Aita Villasanteri igorri dion gutuna. Gure gomitari erantzuan diote ere euskaltzain urgazle askok eta Euskaltzaindiko batzordeetako langile onak. Eskerrak denei, denok bat eginen baitugu Aita Villasante-ren omenaldi honetan.

Besta dugu beraz, besta Euskaltzaindiaren barrenean, besta Gernikan, Euskal Herri osoko bihotz den hirian, Gernikako seme bati eskainia.

Holako besta bat merezi du Aita Villasante-k, euskaltzain eta euskaltzale gisa. Ez naiz haren biziaren xehetasunetan sartuko. Azpimarratuko ditut bakarrik Euskaltzaindian egin dituen urratsak. Hogeita hameka urte zituen euskaltzain oso izendatu zutelarik, duela orain 41 urte. Krutwig eta Aita Villasante dira Euskaltzaindian zaharrenak, ez adinez, baina bai denboraz. Gero nator ni ere aita Diharce "Iratzeder"-ekin biak batera hautatu baigintuzten hain zuzen hilabete honetan, duela 30 urte.

Euskaltzaindiaren historian sartua da Aita Villasante-ren sarrerako mintzaldia Bizkaiko Diputazioan —ordu hartan ez zen aipatzen Foru Aldundirik— “Literatur-euskara laphurtarr klasikoaren gain eratu” tituluarekin eta Federico Krutwig-en erantzuna. Erantzunarengatik erbesterratu zen Krutwig. Berrogei urte iragan dira. Hor ditugu biak berrogei urteren buruan. Gazteak ziren gorputzez eta gogoz, gazteak dira oraindik gogoz bederen.

Berrogei urte! Berrogei urte horietan ez da alferrik egon Aita Villasante. Aski da irakurtzea José Antonio Arana Martija-k egin dion bibliografian zenbat liburu, artikuluak aparte, idatzi dituen Aita Villasantek.

Erlisoneari dagozkionak dudarik gabe fraile batek eginbide duen bezala. Horietan irakurtu duen tesia *La sierva de Dios María Angeles Sorazu, Concepcionista Franciscana* (1873-1921). *Estudio místico de su vida* (1950), eta euskaraz *Nere izena zen Plorentxi. Angeles Sorazuren bizitza* (1961). *Angeles Sorazu. Bizia eta mezua* (1990). Bai eta ere *Kristau fedearen sustraiak*, lau liburu gotor, lehena 1962-an, bigarrena 1969-an, hirugarrena 1984-ean, azkena 1986-an.

Erlisonearekin zerbait ikusteko duen liburu batez arduratu da Aita Villasante: Axularren *Gero*-az. Eman digu lehenik testua bere espainiolezko itzulpenarekin, bertze batzuek ere kontura zitezen *Gero*-aren balioaz (1964) eta segidan istudio eder bat *Axular, Mendea, Gizona, Liburua* (1972), eta *Axular-en hiztegia* (1973). Geroztik, agertu dira idazle zahar batzuen hiztegiak baina, dakidanez, Axular-ena da lehena, bide urratzaila beraz.

Euskararen lekukoak deitzen den liburu sortan, Aita Villasante-k eskaini dizkigu hiru liburu:

— Etienne Lapeyre: *Kredo edo Sinesten dut esplikatua* (1982).

— Pierre Guillaume de Lavieuxville-Harosteguy: *Bayonaco diocesako bigarren catichima* (1985).

— Juan Antonio Moguel ta Urquiza: *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina Cristiana* (1987).

Hiruak edizio kritikoak dira. Ohartarazten dut aipatu ditudan lau idazle horietan, Axular barne, hiru Iparraldekoak direla, erakustera emaiten baitu ez dela euskalki batean bakarrik gelditzen Aita Villasante baina begirada zabal eta sakon bat botatzen diola euskal literatura osoari.

Eta nola, hain zuzen, ez aipa *Historia de la literatura vasca* (1961) deritzan liburua. Oroit naiz erosirik agertu zenean, hala nola erosi nuen Mitxelenarena urte bat lehenago agertua. Liburu horren bitartez egin nuen Villasanteren ezagutza, erran nahi baita egiazki ikusi baino lehen ezagutu nuela izpirituz. Bi liburu horiek eskupean dauzkat, edozein

momentutan beharrezkoa dudan datu baten bilatzeko. Orduan, duela beraz 31-32 urte, ez genuen holako libururik eskuetan, salbu Lafitte-kegina zuen liburutxo.

Arantzazuko kongresua bururatu zelarik, euskara batuaren auzian sartu zen Aita Villasante, ikusten zuela pedagogiaren beharra, erakutsiz zer izan zitekeen literatura euskara (hala deitzen zen orduan) eta honen behar gorria. Hartakotz sortu zuen Arantzazun serie *Luis de Eleizalde* deitutako sorta, horietan bederatzi liburu agertuz.

- 1970 *Hacia la lengua literaria común*
- 1972 *La declinación del vasco literario común*
- 1974 *Palabras vascas compuestas y derivadas*
- 1976 *Sintaxis de la oración compuesta*
- 1978 *Estudios de sintaxis vasca*
- 1980 *Sintaxis de la oración simple*
- 1980 *La H en la ortografía vasca*
- 1986 *La oración causal en vasco*
- 1988 *Euskararen auziaz*

*Luis de Eleizalde* sortan agertu diren liburu guziak —bederatzi— Aita Villasante-k idatziak dira. Dirudianez, *Euskararen auziaz* da holako testamentu bat, euskaldunentzat interesgarria, liburu horretan bilduak direlaketz euskarak ezagutzen dituen gora-beherak. 1988-an agertu da euskaltzainburuaren kargua uztera zoalarik. Hortakotz diot testamendu idurikoak dela.

Hainbeste liburu idazteko (23 bakarrik aipatu ditut ez baita gutti) behar da bakartasunean bizi, Arantzazuko komentuko gela ttipi batean. Gela ttipi hartarik jalgitzen zen mundura Euskaltzaindiaren biltzarretara hemetzortzi urtez euskaltzainburu izanez. Eta zer euskaltzainburu! José Luis Lizundiaren laguntzarekin egituratu du Euskaltzaindia, batzordeak sortuz, lanak eginaraziz, kongresuak bultzatuz.

Euskara baturako bidea hartu du Euskaltzaindiak, ortografia, deklinabidea, erakusleak, aditz laguntzaile batuak proposatuz. Bergarako biltzarrera, Arrasatekoa, dira urrats garrantzi haundikoak euskara baturako bidean. Euskaltzaindiak eskainitako proposamenak idazle gehienek onartu dituzte; gero eta liburu gehiago idazten da Euskal Herrian, izan daitezen eskolako liburuak edo literatura liburuak. Badago oldar bat, bereziki gazteen artean, Euskaltzaindiaren bidetik doana.

Anartean, erakunde publiko itxura hartu du Euskaltzaindiak, erretrekuari esker, hau 1976-eko otsailaren 26ekoa, autonomi estatutuari esker, Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren, hiru Foru Aldundien ezagupen ofizialarekin eta pentsatzen dut aurtan lortuko duela Pyrénées-Atlantiques-tako ezagupena ere.

Geroztik, lan luze eta sakonetan sartu da Euskaltzaindia: *Orotariko Euskal Hiztegia*, Gramatika, Euskal Herriko Atlas, Onomastikako eta literaturako ikerketak biltzar edo jardunaldien bitartez sustatzen dituela. Sekulan ez da orain bezain lan egin Euskaltzaindian, lekuko direla argitalpenak: *Euskera* agerkaria (hemendik goiti hiru zenbaki urtero) Euskararen Lekukoak, Onomastikako liburuak, Gramatikaren hiru liburukiak, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* 5 liburukiak, Iker saileko eta sortako liburuak.

Horiek guziak sortu dira Aita Villasante euskaltzainburu zelarik. Eta orain zer egin? Aldi bat baino gehiagotan erran dut eta errepikatzen dut egun ere, urratu bidetik ibili behar duela Euskaltzaindiak, hasiak diren lan luzeak behar direla bultzatu eta burura ereman, ez baita lan ttipia eta ez lan erraza.

Halere, Euskara Batuko batzordea berrikitan sortu duelarik eta kontutan hartuz edozein kultur edo erakaskuntza alorretarik heldu diren galdeek erantzun bat behar dutela, urratsez urrats segitzen du Euskaltzaindiak euskara baturako bide luzea, proposamen berriak eginez eta L.E.F. batzordeak egin duen bezala, proposamen horiek luzatuz erakaskuntzan edo bertze elkarteetan ari diren jendeei haien iritzia jakiteko, erran nahi baita euskaltzaleen mundutik hurbil nahi duela egon gauzen behar den bezala apailatzeko.

Euskaltzaindiaren helburua da, emeki-emeki, gero eta urrunago joaita euskara batuaren bidean, lan eta ikerketa sakonen bururatzea, euskararen eremuan dabilzan unibertsitate guzietako erakasle-ikerleen biltzea, indar guziak bateratuz, hiztegi gintzan, gramatikan, dialektologian, onomastikan, literaturan. Horretara heltzen ari da kongresu edo jardunaldien bitartez eta, nola ahantz, agintari guzien diru laguntzarekin.

*Iker* 6 liburu mardula aurkezten dugu gaur: *Luis Villasante-ri omenaldia* deritzana. Hori da Euskaltzaindiak eskaintzen diona hemezortzi urtez euskaltzainburu izan denari. Euskaltzain osoei, urgazleei eta batzordeetako langileei, nahiz ez izan euskaltzain oso edo urgazle, galdegin zaie parte hartzea. Hogei ta hamaika gara, Euskaltzaindiak dituen batzordeetakoak beren lana eskaini dugunok. Azkenean, zer opa dezake Euskaltzaindiak ez balinbada ikerketa lana. Eta opari hau emaiten dizut denen izenean bihotzaren zolatik.

Badakit Gernikako udalak eskatu diola Bizkaiko Foru Aldundiari izenda dezan Aita Villasante Bizkaiko seme bikain. Diot goraki egun Euskaltzaindia ados dagoela holako eskakizunarekin. Bizkaiak dauka aita Villsanterekin seme berezi bat, bizi guzia eman diena erlisioneari eta denbora berean euskarari.

Fraile umila da aita Villasante baina euskararen zerbitzari handia. Anitz urtez aita Villasante! Zorionak!



## AITA LUIS VILLASANTE JAUNA

*Gasteiz, 1992, uztailak 22*

*Jose Antonio Ardanza Garro  
lehendakaria*

Aita Luis Villasante, jaun agurgarria:

Gernikako zure jaioterriak eta Euskaltzaindiak, ongi irabazitako omenaldia eskaintzen dizute. Zor zaizun esker on hori agertzera hurbil nadin jaso dut neuk ere gonbidapena. Egia esan, gonbidapen bati ezin erantzunak beti ematen du pena. Oraingo honetan mina eta lotsa ere ematen dizkit. Inork Lehendakari baten esker ona merezi badu zuk merezi baituzu. Baina, zoritxarrez, ezin naiz egun horretan zure ondoan izan. Barkatuko didazula uste dut. Eta barkatuko didatela Gerniak eta Euskaltzaindiak ere.

Gorputzez urrun banaiz ere, bihotzez zure ondoan eta zuen artean izango nauzue, ordea. Izan ere, zuk, Villasante jauna, bizitza osoa eskaini diozu euskarari, Herri honen berezko hizkuntzari. Euskara irakasten, teologia euskaraz ematen, euskal literatura aztertzen, euskara lantzen, euskararen batasuna gidatzen eta euskarari buruzko gogoetak eskaintzen saiatu zara, etengabe. Zerrenda luzea osatzen dute euskarazko zure lanek. Beste inork ondu ez duena, seguruenik.

Hala ere, espanturik eta harrokeriarik gabe burutu duzu zure lan eskerga eta isila. Euskara “esklusiboki” zeuretzak hartu gabe, “beronen jaun eta jabe” bazina bezala. Euskara “guztion ondarea” dela erakutsi diguzu, zure idatzietan eta zure jokabideetan. Horregatik zaindu nahi izan dituzu euskara eta Euskaltzaindia alderdikeria eta taldekeria guztietatik.

“Hizkuntzaren ofizio propioa bete beharrean, hizkuntza hartzen da, alegia, beste zerbaiten bandera, arma edo aitzakitza, dela politika, ideologia edo berez hizkuntzaren bere baitako eiteaz zerikusi ez duen beste zerbait” salatu izan duzu, “hizkuntza herri baten ondasuna da, guztion ondarea” azpimarratzeko. Izan ere, “orduan ez du inork beretzat eksklusiboki hartu behar, beronen jaun eta jabe balitz bezala. Aukera eta ikusmolde partikularren gainetik dago hizkuntza. Pluralismo bat dagoen herrian euskara ezin lot daiteke partilularismo batekin. Euskara zinez maite duenak ahaleginak egin behar ditu guztiona dena beretzat bakarrik ez hartzeko”.

Zure lanengatik eta euskarareriko zure atxekimendu eta zure jokabide zabalagatik har itzazu Lehendakari honen eta bere Jaurlaritzaren eta Euskal Herri osoaren eskerrik beroenak zure omenaldi egun honetan. Eta zurekin izan bitez beti, San Frantziskoren seme horrek bestei hainbeste aldiz opa izan dizkiguzun **BAKEA** eta **ZORIONA**.

## GERNIKAKO UDALETXEAN

1992-VII-24

*Luis Villasante*

Sergio Villa, Gernika-Lumoko alkateorde jaun pres-tua eta Udaletxeko zinegotzi jaunak, Jean Haritschelhar euskaltzainburu jaun agurgarri eta euskaltzain maiteak, Mari Karmen Garmendia, euskararen arduradun maratz eta bihargina, Ahaide, ezagun eta adiskide, neure Orde-nako Anaia, herritar maite eta gainerako entzule guztiak:

Bake eta On guztioi:

Lotsaturik eta abaildurik bere banago, hainbeste omenaldi, gorespen eta ohoregaitik. Alde batetik gurako neuke isilik egon eta dana arin pasatzen itzi, baina ezin. Gura ez gura, zerbait esan beharrean nagoela garbi ikusten dot. Beste aldetik, ez da hau berbaldi luze eta gogaikarria egiteko une egokia. Motx egoten ahaleginduko naz, bada.

Neure lehenengo berbea zein dan esan beharrik ez dago: Eskerrik asko atondu dozuen eta merezi ez dodan omenaldi honengaitik. Eta hemen zilegi izan bekit aparteko modu batean gernikar euskaltzain Jose Antonio Arana Martijaren izena aitatutea. Oker ez banago, berbera izan da eta, omenaldi honen hariak lotu dituen. Esker bereziak, baita be, Haritschelhar euskaltzainburu jaunari.


Ni Erreteria auzoko semea naz. Ni jaio nintzanean, Erreteria hori ez zan Gernika, Ajangiz baino. Hori bai, bizitza guztia Gernikagaz egiten genduan. Hemen ikusten dot Patxikito, Txautxi zanaren semea, eta bai Maria, Patxikitoren ama bere: hain zuzen, horreek ziran gu bizi giñan etxearen jaubiak.

Txautxi bera uste dot aulestiarra zala, eta bai neure ama bere. Txautxiren arrebea, Victoria, eta beraren familia bere asko ezagutu nituan neure ume-denboran, geure ate-ondoan bizi ziran da.

Pedro Bikandi, gero gerrean hilko zana, lagun kutuna izan neban. Eta gogoan dot beste bat, Alexander Kalzada izeneko, zelan joan zan

Kaliforniara, aita han eukalako —artzain seguraski— eta gehiago ez dot haren barri jakin. Xanti Txopitea, Ignacio Gezuraga, José Larruzea, Isidro Mestraitua —marmolistearen semea—, José Gascón —honegaz erderaz egiten genduan, euskerarik ez ekielako—, eta zalantza bage orain gogoan ez ditudan beste asko, lagunak izan nituan. Gernika eta Ajangiz artean muga egiten eban zubiko bazterrean —Gernikako aldetik— bizi ziran Gandariastarrak; horreek bere lagunak izan nituan, eta bat, José Antonio, nigaz joan zan Arantzazura eta orain Foruko komentuan bizi da.

Baina aparteko modu batean aitatu gura dot gaur hementxe dagoan eta neure lehengusina dodan Vicenta Careaga, Lorategietako auzoan bizi dana. Nire ama hil zanean, aitak ni eta nire arreba María Dolores —Valladoliden monja dagoena— zaintzeko, berau ekarri eban Aulestitik. Zenbat zor deusadan esan beharrik ez dago.



“Párvulo” mailako ikasketak Santa Joaquina Vedrunaren Karidadeko Karmeldarretan egin nituan, eta hantxe izan neban ikaslagun Josu Sabin Etxebarria, gero kimiko gisa eta ez dakit zenbat gauzatan gizon jakintsu eta argia bilakatu dana.

Arestian aitatu dot Isidro Mestraitua, marmolistearen semea. Gure lagun taldean, besteok baino apur bat zaharragoa zalako edo, berau taldearen kapitan izendatu genduan, eta beraren laguntzaz txalupa bat egin bere bai, errekan ibilteko. Izena bere halakoxea ipini geuntsan txalupa horri —erderaz, noski, nahiz eta geure artean euskeraz berba egiten genduan—, hots, “El Pirata Negro”. Horrelakoak izaten ziran gure olgetak.

Gainerakoan, ni monagillo izan nintzan San Joango eleizean. Goizeko bederatzietako mezea erasotzen neutsan Don Dionisio abadeari. Urte hareetan zabaldu zan Ezkiogan Ama Birjinea agertzen zalako zurrumuru. Eta behin sakristian, abadeok halako mesfidantza batez mintzo ziran agertze horreeri buruz. Ni han nengoen isilik dana entzuten eta neure barrurako esaten: —Abadieki siñestuten ez badabe, nok siñestu behar dau ba...?

Don Dionisio abadeari, Arantzazura niñoiala ta, agur egin neutsanean, hauxe san eustan berak: —Ni hil nazala entzuten dozunean, erre-zau nigaitik Pater Noster bat. Ni, hori entzunda, artega geratu nintzen, Pater Noster ze otoitz-klase zan ez nekielako. Hori ulertzeko, jakin behar da orduan mezea latinez egiten zala eta gehiena erdi ixilik edo ahopean. Monagilloek “Sed libera nos a malo” erantzuten genduen eta besterik ez. Hortik nire ez jakina.

Katekesian behin D. Jose Jauregi abadeak itaune bati erantzuten ekenari pelotoi bat emongo eutsala esan eban. Neuk jaso neban saria. Gogoan dot zelan joan nintzan Gernikako arbolearen ondoan egoan abadearen etxera, eta zelan jaso neban pelotoia D. Joseren eskutik.

Eskola kontuan, Gernikako eskola publikoetara ez genduan joaterik, gernikarrak ez giñalako; Ajangizko eskolea, barriz, urruntxo egiten jakun. Orduan eskola partikular batera joan behar, Ansotegi jaunaren eskolara. Berau be fraide izana zala uste dot. Organo jolea zan, eta Gernika inguruko herrisketan hiletak ziranean, organoa jotzera joaten zan. Base-rritarrak baekien maisu zala eta askok heuren semeak bidaltzen zituen Ansotegi honen eskolara. Horregaitik nik mutil euskaldun asko izan nituan eskola-lagun.

\* \* \*

Nire aitari buruz bere zerbait esan beharrean nago. Nire abizena erdalduna dalako, edo ez dakit zergaitik, hamaika gauza zabaldu dira hor bazterretan: erdaldun hutsa nazala, nire aita guardia zibila zala, edo

maisua, edo ez dakit zer. Baina dana asmakeria. Nire aita Valle de Menakoa zan, Cadagua auzokoa. Izen bereko ibai eder hori —lehen behintzat, arrankariz aberatsa zana— sortzen den tokikoa. Cadagua ibaia, dakizuenez, Bilbora doa, eta hango jendeak bere hara dau joerea.

Nire aita nekazari etxeko semea zan; bizimodua ataratea orduan —ez orain bakarrik— gatxa zan nonbait, eta beste asko legez, oso gazterik Cubara joan zan eta hango denda baten —Santa Clara herrian, uste dot, morroi ibili zan. Han egoala sortu zan Estatu Batuek Espainiari egin eutsoen gerrea, eta berau amaitu zanean, hona etorri zan betiko. Nire ama, barriz, Bilbon egon zan neskame, eta aitak eta amak Bilbon alkar ezagutu ebela uste dot, Aultestin ezkondu eta Gernikan bizitzen jarri (hobeto esan, Erreterian).

Ume-denboran udako sasoiaren denboraldi bat pasatzera Cadaguara joaten giñan aitagaz, Bilbon Roblako trenan hartuz. Han auzoko beste mutikoekez idiak bedartzara eroan eta bertan zaintzea izaten zan gure egitekoa. Guztiz toki menditsua da Cadagua hori. Inoz etorri jat Arantzazura ikustaldi egitera han umetan nire lagun izandakoren bat. Gaur Valle de Mena horretan euskaraz ikasteko lekuak be badagoz; jendeak badaki eta, Bilbo aldean lanpostua lortzeko euskaraz jakitea eskatzen dala. Aulesti aldera, barriz, Gernikatik bertanago dagoelako, maizago joaten giñan. Han izan ditut eta baditut orain bere osaba-izekoak, lehengusu-lehengusinak etab. Mezarbarria be Aulestin emon neban, amaren herria zalako eta orduan Gernikan nire etxekoririk inor bizi ez zalako. Izan be, nire arre-bea monja joana zan eta anaia zaharra Aulestin zegoan.

Nire aitak izan eban beste seme bat ni baino 8 urte zaharragoa; hau, bai, Menako Cadaguan jaioa zan, baina ama hil jakonean, Gernikara aitagaz bizitzera etorri zan. Gernikako Agustinoetan egin zituen ikasketak. Aitaren asmoa zan seme hau bere Cubara bidaltzea, eta inglesa ikasteko Inglaterrako fraide batzuen barnetegian egin eban urtebete edo, baina gero gauzak okertu egin ziran eta ez zan Cubara joan. Han ekonomia krisi handia egoala uste dot. Nire anaia horren alabea eta nire ilobeak da Myriam Villasante, gaur Elgoibarko Institutuan euskal irakasle iaioa, eta gaur hemen dana.

Ez da, bada, egia inoz hortik zabaldu dana, hots, ni sortzetik erdal-dun hutsa nazala. Euskerea eta erdereak, bi-biak, entzun, ikasi eta erabili ditut bai etxean eta bai kalean txiki-txikitatik.

\* \* \*

Ni Arantzazura joateaz, jakina, nire bizitzako giroa arras aldatu zan. Euskera kontuan egia da hasierean torpetu egin nintzala; han euskerazko sermoiak eta abesti batzuk entzuten genduzan, bai, baina ikasketa danak

eta bizitza osoa erderaz zan (edo latinez), eta mutikoei inoz entzuten geuntsen euskerea bere guttiz bestelakoa begitanduten jakun. Euskalkiekaz topo egitea izan zan hori neretzat, eta tajuzko euskal eskola hartu bage, oztupo hori ezin gaiditu.

Arantzazu eta Foruko ikastetxeetan bost urte eginda gero, gerrea lehertu zan. Hori dala eta, hamar hilabete egin behar izan nituen hemen, aitaren etxean, eta Tomas Gomezaren galleta-fabrikako bulegora joaten nintzan zerbait lan egitera nire anaiaren orde, hau gerrara joana zan eta.

Bonbardeoko egun zorigaiztoko haretan bere hemen gertatu nintzan. Nire aita gaisorik egoan. Esne hutsez bizi zan. Bonbak jausten hasi ziranean, nire lehenengo burubidea aita Gernikako errefujioetara eroatea izan zan, baina ezin; errefujioak gure etxetik nahikoa urrun gelditzen ziran, eta aita hainbeste ibilteko ez izan gauza. Orduan gogoratu jatan Patxikitok, Txautxiren semeak, egina ebalu geure etxe ostean ezkuta-leku bat lurrian, eta aita haraxe eroan neban. Eta hantxe pasatu genduzan hiru ordu edo gehiago latzak. Burrubak entzuten eta sugarrak ikusten. Baina geure buru ganean ez zan batño jausi, eta halan salbau giñan, Jaungoikoari eta Patxikitori eskerrak...

Gerra harek bere ikutua itzi eustan. Komentuko fraide gazte batzuen artean orduan, hain zuzen, sortzen da euskal giro bat. Herri honen ondarea dan euskerea landu, zaindu eta indartu behar dogulako kezka, alegia. Euskaltasuna nigan berpizteko, kezka horrek asko lagundu eustan. Aita I. Omaetxebarria (gernikarra berau bere), Aita B. Mendia, Aita Salvatore Mitxelena, K. Iturria, E. Agirretxe, J. A. Gandarias etab., danai asko zor deutsiedala ezin dot ukatu.

Baina honako hau bere esan gura dot: nire euskal bidea beti izan dala euskerearen aldekoa eta ez inoren kontrakoa, euskara lantzea eta bultzatzea, baina burrukak eta bortizkeria alde batera itzirik.

Barka, jaun-andreak, nire pertsonari buruz hainbeste gauza esaten badiardut; baina nire gernikartasun-agiriak, ukatuak edo behinik behin zalantzan jarriak izan diranak, gaur probatu eta egiztatu egin behar nitue-la iruditu jat.

\* \* \*

Hitzerditxo bat esan gura neuke oraindino euskara batua dala eta, oker aditu batzuk zuzentzen laguntzeko. Izan bere, neuri egozten deustie batzuek neurri handi batean euskara batuaren errua. Euskaltzaindiak, euskara batuaren atxakiaz, euskalkiak galazo besterik ez ei dau egin, eta abar, eta abar. Bai. Horrelako esamesak korritzen dabe.

Euskara batua. Badakit ez dala une aproposa auzi hau bere luze-zabalean hemen azaltzeko. Gogora daigun, hasteko, gauza bat, eta da: Euskaltzaindiko lehen burua, Azkue jauna, izan zala batasunaren eginbeharra Euskaltzaindian proposatu ebana, eta uste dot Broussain iparraldeko jauna izan zala berari kezka hau itsatsi eutsana. Eta gero hor dogu Sebero Altube jauna, gernikar ez izanik bere, hemen bizi eta Gernikako alkate izan zana; euskaltzaina zan eta beronek be argi eta garbi irakatsi eban batasunaren premiñea.

Gerra ostean, barriz, euskal batasunaren auzi honek halako birmoldaketa bat hartzen dau Krutwig, Mitxelena, Aresti, Oskillaso, Berriatua (erdi gernikarrak honeek biok) eta beste batzuen eraginez. Gaur garbi ikusten dogu euskerea hizkuntza bat dala eta ez hizkuntza asko. Euskalkiak gora-behera, hor azpian oinarrizko batasun sendo bat daukala euske-reak. Guztiona dan oinarri horretan oinarriturik eraiki nahi da, bada, euskara batua, zenbait idazmotatan erabilteko beharrezko lez ikusten dan tresna edo lanabes hori.

Anekdotak txiki bat kontauko dot, neuri aspaldi gertatua. Francoren denboran zan. Udako sasoiari etorten zan Arantzazura andra bat, katalana bera. Komentuko porterian eskatu eban euskerazko gramatika bat, Arantzazun egon behar eban denboraldian apur bat aztertu, eta euske-reak zer moduzko hizkuntzea ete zan antz emoteko. Porterikoek neuri deitu eustien: —Egon zaitze emakume horregaz eta jaramon egiozu. Nik itandu neutsan emakumeari: —Zein euskalkitako gramatika gura zeunke: bizkaierearena, gipuzkerearena, lapurdiearena, zuberotarra...? Eta berak: —Nik ez dot dialektorik gura, euskara huts garbia eta danona baino. Eta nik barriro: —Baina, andrea, zuk gura dozun hori ez dago, ez da existitzen. Hemen dialektoen gramatikak dagoz, eta ez besterik.

Berak orduan: —Eta zeri begira zagoze? Noz egin behar dozue hain beharrezkoa dan guztion hizkuntzea? Gu bere, katalanok, horrela egon gintzazan luzaroan, baina gaintu genduen egoera hori, eta batasunak egundoko indarra eta osasuna ekarri deutso hizkuntzeari, katalan hizkuntzeari...

Orduan nik neure barrurako pentsau neban: —Egia ete diño, gero, emakume honek?...

Bai. Egia da batasuna behar-beharrezkoa dabela euskereak, biziko bada. Baina horrek ez dau esan gura, beste aldetik, euskalkiak edo dialektoak baztertu edo galazo behar diranik. Bai batarentzat eta bai besteentzat be geratuten da tokia. Idazmota batzuetarako egokiagoak gerta daitezke euskalkiak. Eta hauxe da Euskaltzaindiaren jarrera auzi honetan.



Jaun-Andreok, besterik ez. Eskerrik asko, barriz be, Euskaltzaindiari eta Gernikako udalari, omenaldi honegaitik. Eskerrik asko, baita bere, ospakizun honetara etorri zarien guztioi.

Amaituteko, ongi etorria, baita be, hemen ikusten dodan, Gernika ingurukoa dan eta gaur euskal poetetan haundienetako dogun Victoriano Gandiagari!